



## Egilearen eskutik

# "Baietz" metodoa

Eduardo Iriondo

*Euskara irakasteko metodogintzan eginiko bidea islatu nahi dugu hemen; euskararen irakaskuntzan ezer onik egin bada, besteak beste, tresna hauei esker izan bait da. Oraingo artikulua bilduma honetako hirugarrena dugu.*

### "Baietz" liburu sorta

"Baietz" liburu sortaren lehenengo ale experimentalak 1984eko irailean argitaratu zituen Unibertsitateko HEZIk (Hezkuntza Zientzien Institutua). Gerokoan hainbat argitalpen berri egin dira, liburuen mailak Irakaskuntza Ertainetan ezartzen ari zen mailaketa ofizialaren aldaketei egokitzearren. Funtsean, baina, osagarri berak izan dituzte urte guztietan: *Ikaslearen liburua*, *Ariketa liburua*, *Irakaslearen gidaliburua* eta *Entzute-ariketen kasete-zinta*.

Bere xede-taldea A ereduko Irakaskuntza Ertainetako ikasleak izan dira hasieratik; baina, Irakaskuntza Ertainetako mailaketa ofizialaren aldaketen eraginez, OHOk azken mailetara ere zabaldu da; izan ere, Irakaskuntza Ertainetako lehen mailan *Baietz 2* erabiltzen hasi zenean, OHOk hainbat irakaslek Ertainetan erabiliko zuten metodoaren lehen maila erabiltzea hobetsi bait zuen.

### Programazio ofizialen egoera

Baina, gure liburuen inguruko gorabeherak eta denbora gutxian zehar jasan dituzten aldaketak ondo ulertzeko, urte hauetan A ereduko ikasleentzako Euskara programazio ofizialak jasan dituen (eta jasaten ari den) aldaketak eduki behar ditugu kontutan, honetan hainbat aldi egon bait dira:

- a. 1981era arte: OHOk ikasleak maila desberdinekin datoz (ofizialki) Irakaskuntza Ertainetara (batzu X eredu desagertutik datoz). Irakaskuntza Ertainetan ez dago euskararako programazio baturik, Ertainetako 1. urtean beti hutsetik hasiaz.
- b. 1982tik: Irakaskuntza Ertainetarako programazio ofiziala zehazten da ofizialki; baina, OHOrako Irakaskuntza Ertainetakoarekin loturarik ez duen beste programazio bat dago eta, teorian, OHO osoa A ereduan egin duen ikasle batek Ertainetako IV. maila (gutxi gorabehera) erdietsia izan beharko zuen OHO amaitu orduko. Hala ere, Irakaskuntza Ertainetan hutsetik hasten jarraitzen da (hau da, programazioaren I. mailan), urteko maila bana gaindituz.
- c. 1987tik Irakaskuntza Ertainetarako zegoen programazio ofizialaren mailak pixkanaka-pixkanaka igotzen hasten dira eta horrela 1986-87an

Irakaskuntza Ertainetako lehen ikasturtean I. maila lortu behar bazen, 1988an II.a eta 1990ean III.a. Horren ondorioz, gertatu izan da OHoko 8. mailakoak eta Irakaskuntza Ertainetako 1. eta 2. mailakoak (bai BBBkoak, bai LHkoak, bai "REM" deritzonekoak) maila bera eman beharrean egotea, hau da, *Baietz 2* liburuarekin egotea. Testuinguru honetan ikusi behar dira, bada, gure liburuen gorabehera guztiak, egoera aldakor horretara egokitzea bait zen guri zegokigun lana.

- d. Bestalde, 1989an euskara selektibitate-frogan ezarri zen; bertan eskatzen den maila aldatuz joango da ikasleek UBIIn erdietsi behar duten programazio ofizialaren mailaren arabera. Orain arte IV. maila izan bada, 1992an V. maila izango da eta 1993an VI.a. Azterketa honetan testu baten ulermena (irakurri eta galderak normalean) eta idazmena (gidoi bat emanda idazketa bat egitea normalean) ebaluatzen dira (gutxi iruditu arren, kontutan eduki behar dugu ingelesean, esate baterako, irakurmena baino ez dela ebaluatzen froga berean).

### **Hastapenak** *Arrazoiak*

1982an HEZIk euskararen metodologiari buruzko ihardunaldi batzuk antolatu zituen Irakaskuntza Ertainetako irakasleentzat, bertatik Euskara mintegi orokor bat sortzeko asmoz. Han geundenon eritziz, testu-liburu bat beharrezko zen hainbat arrazoiengatik:

– Ordurarte zeuden metodoek etapa batzuetako hutsuneak ondo beteak zituzten (*Hitz Egin, Jalgi Hadi, Euskara Mailaka* ziren erabilienak) baina ez zitzaizkion, orduan behintzat, programazio ofizialari egokitzen.

– Programazio ofizialak edukin minimo batzuk, hizkuntz ekintza batzuk eta esaldi eredu batzuk zehazten zituen; baina programazio amankomun bat eramateko, "bete" egin behar zen hori, derrigorrean "osotu".

– Irakaslegoaren gehiengo berria zen eta horrek programazio orokor bat baino zerbait "seguruago", "eginagoa" eskatzen zuen.

– Testu-liburu bat, beraz, gure egoeran eta gure jakintzagaian beharrezkoa zen, material osagarri sortak nahikotzat jotzen ez zirelarik.

### **Lankideak**

Arazoa, baina, zezenari adarretatik heltzea zen. HEZiren laguntzaz, lau irakaslek ekin genion lan horri, berehala *Edurne Etxebarria* eta biok bakarrik geratu ginelarik.

Lehen fase horretan, erizpideak finkatzerakoan batez ere, Enrique Landeta eta Iñaki Goiriena izan genituen geurekin, zoritxarrez taldea laster utzi bazuten ere. Lehen liburua argitaratzeko lanak eta estuasunak ikusi ondoren, argi genuen bi baino gehiago izan behar genuela, eta horrela bigarren libururako *Eneko Lorente* eta *Begoña Lezamiz-Etxebarria* izan genituen taldean; baina hauek ere lan-arazoak zirela eta, utzi egin behar izan zuten. Hirugarren eta laugarren liburuak presaz eta eskabideak estututa guk biok tajutu genituen, bosgarrenarako *Cristina Ibañez* taldean gurekin batera dugularik.

## **Argitarapenak**

1984-85 ikasturtearen hasierarako, doi-doi baina eduki prest genituen *Baietz 1* lehen ale experimentalak, HEZIK berak argitaratuak. Tomas Uribeetxebarriaren eraginari esker argitaraturiko 3.000 aleak Institutu batzuetan esperimentatu ziren eta hurrengo urtean Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuak argitaratu zituen.

*Baietz 2* liburuekin gauza bera egin genuen (urte batean esperimentaziorako ale batzuk atera eta hurrengoan behin-betiko argitalpena). Baina, *Baietz 3* eta *4* liburuekin gauza bera egitea pentsatzen bagenuen ere, ezinezkoa izan zitzaigun, eta hori liburuen lehen argitalpenetan igarri egin dela uste dugu.

Dena dela, nahiz eta guk, egileok, argi izan mailaketa ofizialaren etengabeko aldaketa horiei egokitzeko gure liburuek ere etengabeko aldaketan egon behar dutela, ez zaigu hori beti posible izan, geroago azalduko dudanez.

## **Metodoaren nondik norakoak**

*Programa funtzional/  
estrukturala*

Programazio ofizialak metodologiaren nondik norakoak zehazten ez bazituen ere, norabide bat markatzen zuen, metodologiarako erizpideak inplizitoki, behintzat, bertan agertzen zirelarik. Programazio ofizialak "edukin gramatikal" *batzuk* zehazten zituen, "hizkuntz ekintzak" eta "esaldi ereduak", hauek guztiauek, beti, minimotzat hartu behar omen zirelarik. Bide hori definitzerakoan, beraz, esangabekoa esandakoa baino gehiago bazen ere, bazirudien programa funtzional eta estruktural baten arteko oreka bilatzea eskatzen zela.

## **Erreferentzia hurbilak**

Zeintzuk ziren, baina, programa bat egiterakoan kontutan hartu beharreko erreferentzia hurbilak?

## **Ikastaldean antolaera**

Ertainetako ikastegietan euskaltegietan agertzen ez ziren faktore batzuk hartu behar ziren kontutan:

- ikastaldek 30-45 ikasle artekoak ziren;
- ikastalde bakoitzean ere erritmo desberdinak zeuden, ikasleen maila inola ere bat bera ez zelarik;
- horrelako taldeetan emaitzak kontrolatzea guztiz zaila izaten zen.

Egoera honek batez ere erabil zitezkeen tekniketari zeukan eragina: ariketa laburrak izan beharko zuten, talde handitan kontrolagarriak izan zitezkeenak, banakako lanak era bereziak eduki beharko zituen, ariketa komunikatibo hutsek muga argi batzuk zeuzkaten...

## **Ikaslegoaren motibazioak**

- Ikaslea bere ikasketen denbora guztian, programazioetan "oinarrizko mailak" deritzenetan egongo da.
- Ikasleak ez du urtetan izango gaitasun-maila komunikatibo bat lortzeko espektatibarik.
- Ikaslearen kezka nagusia ez da hizkuntza jakitea, jakintzagaia gainditzea baizik. Ez dirudi aurkako jarrerarik daukanik (ikasle ertainak "ikasi nahi luke"ela aitortzen du normalean), baina batez ere ekainean "gainditzea" da bere ardura.

- Ikasleak, beraz, gainditzeko zer "ikasi" behar den jakin nahi du; programa antolatu, mailakatu eta argi bat eskuartean argi garaturik ez badu, noraezean ibiliko da.

Guzti honek erabateko eragina izango du bai syllabusean, bai berau gauzatzeko moduan.

*Irakaslegoa* Gure egoeran ikaslegoak bezainbesteko garrantzia zeukan irakaslegoaren faktoreak.

- 1982an bere hasierako formazioan guztiz heterogeneoa ez ezik guztiz berria ere bazen.
- Ordura arteko irakaskuntz esperientzia ez zen oso positibotzat jotzen, salbuespen batzuk kenduta.
- Metodo baten beharra adierazten zuen irakaslegoak nahiago bide zuen testu-liburu "itxi" bat eskaintzea ireki bat baino. Oso sintomatikoa da gure 4. liburuarekin gertaturikoa: liburu horretan, akatsak akats, testu itxi baten ordezkari material-sorta bat eskaini nahi izan zen, zeinetan irakasle bakoitzak bere aukera egin bait zezakeen bere programazio berezia tajutzeko; jaso dugun erantzuna (apurra), bada, metodo itxiago baten aldekoa izan da, lehenengo bi liburuen ereduak hobesten zelarik.

Inorenak aipatu barik, baina, zehatzagoa litzateke esatea bageundela irakasle-multzo handi bat gure klaserako programazioarekin egokituriko oinarritzko testu-liburu bat nahi genuena ("aizu, atzerriko hizkuntzakoek bezala").

Auzia ez zen, bada, orijinalak izatea, baizik eta beste hizkuntzek eduki zeukatena ahalik eta modurik duinenean edukitzen saiatzea, nahiz eta jakin beste hizkuntzetako testu-liburuen egileek edukitako eskuarteak eskuratzeko aukerarik ez genukeela izango.

Irakaslegoaren faktore honek proposatuko ziren baliabideak baldintzatzen zituen. Horregatik gure asmoa izan zen gutxieneko material bat eskaintzea, edozein ikastegitan edonoren esku egon zitekeen materiala. Denborarekin beste material osagarri batzuk eskaintzeko asmoz ihardun dugu eta, horrela, 1989an irudizko hiztegi bat argitararazi genuen (*Hitzak irudiz ikasiz*).

*Nola antolatu, bada, syllabusa?*

a. Argi izan genuen programaziorako ezin genuela erizpide funtzional hutsa erabili; hau, alde batetik, zail xamarra izan da beti (guretzat behintzat) eta, bestalde, *Erreferentzia hurbilak* atalean esandakoagatik, zerbait antolatuago, "ordenatuago" behar zela iruditzen zitzaigun.

b. Aurreiritziak bazterturik, argi zegoen egitura gramatikalen erizpidea ezin dela inoiz baztertu, antolamendurik gehien eskaintzen duen erizpidea izanez gainera, guztiz beharrezkoa delako H<sub>1</sub>etik hain berezita dagoen euskara bezalako H<sub>2</sub> baten irakaskuntzan.

Bestalde, baina, baztertu beharrekoa zen arlo batzuetan hain zabaldurik zegoen erizpide hura, zeinen arabera edukin gramatikal berririk ikusi ezean ez bait zen ezer aurreratzen. Erizpide funtzionala eta estrukturalak batu beharko liratekeela denok onartu arren, eguneroko ihardunean ez zegoen hain argi: gure 2. ale esperimentaletan "gustatuko litzaidake...-t(z)ea".

egiturak nork bere nahiak edo ametsak adierazteko sartu genituenean, zenbait ohar jaso genuen, hori V. mailari zegokiola eta.

c. Bazegoen, gainera, beste auzi bat: gure irakaskuntz baldintzetan eduki genezakeen aukera bakarra ikasleen trebetasun pasiboetan (entzumena, irakurmena) ekitea zelako hainbaten eritzia, hain zuzen ere. Baieztapen horrek bere oinarri eta funtsa eduki bazezakeen ere, egoki eta egingarria iruditu zitzaigun alde aktiboak lantzea, ezinbestean ahoz adierazi behar ziren oinarritzko hizkuntz ekintza batzuk landuz (agurtzea, informazioa eskatzea, eskaintza egitea, harridura adieraztea...).

d. Egin genuen programak, bada, hiru ardatz nagusi zeuzkan:

- Gramatika-egiturak.
- Gaiak.
- Funtzioak.

Neurri handi batean zurajea egitura gramatikalen araberako mailaketak ematen badu, hau ez da beti gertatzen; eta abiapuntua aldatu egin daiteke unitatetik unitatera. Horrela, adibide bat ipintzearen, unitate bat "Aginduak ematea" edo "Agintzea"ren inguruan eratzen bada abiapuntua funtzionala izanda, beste unitate batean, ordea, abiapuntua "Aginteraren formak" izan daiteke "Mehatxuak egitea"ra ("Ekar ezazu hori, bestela..."), "Mesedeak eskatzea"ra (Ireki ezazu hori, mesedez") edo "Agintzea"ra iristeko. Horrela, adibidez, unitate batzuk edukin gramatikal batzuen inguruan eratzen dira ("zer-nori-nork" aditz-formak), beste batzuk hizkuntz ekintza batzuen inguruan ("nahiak, desioak, gogoak adieraztea") eta beste batzuk gai batzuen inguruan ("zure herria", "jaiak").

*Baietz* 5 liburuan (irteteko dagoena) erizpidea pittin bat aldatzen da, zeren funtzioak eta egitura gramatikalak era paraleloan mailakatzen bait dira zein bere aldetik, bien arteko lotura bakarra unitate bakoitzeko gaia delarik.

e. Saiatu gara, bestalde, behin-eta-berriroko mailaketa bat egiten, hots, ziklikoa. Horren arabera, 1. mailan harridura adierazten ikasten badute ("Hau hotza!", "Nolako ilea!"), 3. mailan horretara itzuliko dira egitura landuagoak erabiliaz ("Zein polita den!", "Zenbat ariketa egin ditugun!"); gauza bera, esate baterako, barkamena eskatzean (1. mailan "Barkatu", 3. mailan "Barkatu, nahi gabe izan da eta").

f. Gure erreferentziak, bada, eredu hurbilez gainera—hau da, *Jalgi Hadi, Hitz Egin, Bakarka, Euskara Mailaka*—, frantsesaren eta ingelesaren irakaskuntzan gure ikasmailetan erabilitako testu-liburuak izan dira: *Opening strategies, Streamline English, Methode orange, Sans frontières* eta beste hainbeste.

### **Ondorengoak**

Hemen esandako erizpideen arabera iharduten saiatu bagara ere, esanetik eginera dagoen tarte horretan zenbat hankasartze egin dugun aztertzeke asti eta betarik ez dugu oraindik izan, egia esan, zeren ia urtero maila berri bat sortzearen preminak behar adina denbora ez bait digu utzi, patxadaz egin beharreko birrazterketa eta metodoaren ebaluazio hori gauzatzeko.

Hala eta guztiz ere, 1. eta 2. liburuek, ale esperimentalen argitalpenez gainera, beste bi berrikuspen izan dituzte (gaur egunean OHOn baino



erabiltzen ez direnez, dauden daudenean geratuko dira) eta 3. liburua behin birmoldaturik dago. *Baietz* 4.ak (aberatsena gure ustez, baina egitura nahasienekoa ere bai) hain beharrezkoa duen moldaketa egiteko aukerarik ez dugu izan orain arte, Argitalpen Zerbitzuaren eskuarteak direla eta.

Gure erabiltze-esperientziak balio badigu ere, hain beharrezkoa den metodoaren beste erabiltzaileen eritzia oso modu zatikatu eta erdipurdikoan iritsi zaigu, informazioaren joan-etorri egokia eratzten ez dugulako jakin, agian. Horregatik metodoaren harrera neurtzeko daukagun neurpide bakarra urtero saltzen den ale-kopurua da. Honek baikor egoteko moduko datuak eskaini arren (azken urtean, adibidez, mailako hamabost bat mila ale saldu dira batzaz beste), horrek ematen digun ziurtasun bakarra metodoaren behar izanarena da eta ez besterik.

### **Aurrerantzean zer?**

Zaila gertatu ohi da maila batetik aurrera metodoen jarraipena ziurtatzea, hainbat metodo goi-mailetara iritsi baino lehenago eten egin bait dira. Gure ustez, hau ez da hain harrizkekoa, zeren baztertu ezinezko arrazoi pertsonalez gain (urtero-urtero horrelako lan batean iharduteak –are gehiago gure kasuan bezala, metodogintza egileen dedikazio bakarra ezta nagusia ere ez denean– sorterazten duen nekea eta tentsioa jasangaitza izaten bait da), kontutan eduki behar bait dugu maila batetik aurrera egitura gramatikalik gehienak ikusita daudela eta, beraz, egitura gramatikal hauek programaren ardatza izaten ezin dutela jarraitu. Eta, gure ustez, edozein aldarrikapen teoriko egiten dugula ere, egitura gramatikalen arabera mailaketa antolaeraz bat falta denean, guztiz zailtzen da programa koherente bat burutzea.

Gure kasuak eskaintzen dituen berezitasunak direla eta, espero dugu hurrengo bi urteetan *Baietz* 5 eta *Baietz* 6 liburua ateratzea, hortik aurrera zer egingo dugun ez dakigularik.

### **Balorazio orokorra**

a. Itsusi emango luke gure liburuei buruzko eritzi txarrik emateak, baina, eginak egin, gutxienez esan daitekeena da gure metodoak hutsune bat bete duela, egon zegoen premia bati erantzun diola eta programazio ofizialean iradokitzen zenaren arabera programa bat (egoki ala desegokia den, tupustean erabaki ezin daitekeen arazoa da) eskaini duela. A ereduko hainbat ikastegitan beharrezkoa zen homogeneousotasun minimo bat lortuz.

Gure metodoa ez da egin bere kasara antolatzea gurago duen irakaslearentzat, testu-liburu baten premia somatzen zuen irakaslearentzat baizik edo, zehatzago esanda, testu-liburu bat beharrezkotzat jotzen duen irakaslearen ikasleentzat.

b. Aitortu behar da, lehenago aipaturiko egoera aldakor horrek eta jasotako eritzi apurren heterogeneitateak eraginda, hainbat zalantza sumatzen direla egindako liburuetan, batzuetan metodoaren planteamendu orokorrak ere ikutuak izan direlarik. Beti presaka ibiltzeak eta gaurtik biharrerako preminei erantzuten ibili beharrak hainbat akats sorterazi ditu zenbait ediziotan, gerokoan zuzengaitzak gertatu direnak.

c. Metodo bakoitzak bere garaia, tokia eta zeregina eduki dezake eta uste dugu gurea beste etapa bat erretzen ari dela. Seinale txarra izango litzateke,

baina, gure metodoak edo gurea bezalako beste metodo batzuek gehiegi irautea, horrek esan nahiko bait luke  $A$  ereduan eman beharrekoa den aldaketak eman gabe jarraitzen duela.

Izan ere –gai honetaz mintzatzean egin behar den hausnarketa da hau– egindako ebaluazioen arabera, oraingo eraketan,  $A$  eredua ez da gai ikasleei hizkuntz gaitasuna lortuko dutelako garantia emateko; are gutxiago Euskararen Normalizazio Legeak ikasle guztientzako zehazten duen hizkuntz helburua lortzeko. Egia da ez dela ebaluaziorik egin  $A$  eredua hasieratik hamasei urtetara bitartean jarraitu duten ikasleen artean, nik dakidanez, baina arlo honetan dihardutenen eritziek planteamendu-aldaketaren beharra aldarrikatzen dute. Hainbat profesionalen egindako proposamenen arabera,  $A$  ereduan ere, euskara komunikazio-tresna bihurtu beharko litzateke, erabiltzearen espektatiba sortu egin beharko litzateke, beste jakintzagai batzuetan (eta ez euskara jakintzagaian bakarrik) eskol hizkuntza bihurtuz. Beharrezko urrats hori gauzatzen den egunean *Baietz* bezalako metodoek ez dute inolako lekurik izango.

*Mungian 1991ko urtarrilaren 3an.*

## **Egilea**

EDUARDO IRIONDO GONZALEZ, elgoibartarra, *Baietz* metodoaren egileetariko bat da. Euskararen irakaskuntzan aritua  $A$ ,  $B$  eta  $D$  ereduetan, irakaskuntza publikoan zein pribatuan. Euskararen planifikazio-lanetan ere ibilia da administrazioan.

Gauregunean Mungiako Institutoan Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasle, HEZIKo Euskara Mintegi Orokorraren kide eta Eusko Jaurlaritzaren Euskara Aholku Batzordeko kidea da.